

KALE GARBITZAILE PLAZA BAT BETETZEKO HAUTATZE PROZESUA

LEHENGO ARIKETA, TEST GALDETEGIA



SINATZAILA - DATA

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI - LEGAZPIKO UDALA(P2005500J-AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI -
LEGAZPIKO UDALA) - 04/03/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/03/2024
12:16:13

EXPEDIENTE ::
2023IZEN00015
Esp.Data: 02/11/2023
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO
GENERAL



1. Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, gai hauetako zein da ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria?
 - a. Pertsonaren duintasuna.
 - b. Nortasunaren hazkunde librea.
 - c. Lege begirunea eta besteekiko eskubideak errespetatzea.
 - d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

2. Espainiako Konstituzioaren 21. artikuluan aitortutako bilera baketsu eta arma gabekoa egiteko eskubideak adierazten duenez, iraganbide publikoetan egindako bileren eta manifestazioen kasuetan:
 - a. Ezin izango da debekatu, ezta arriskua dagoenean ere; hori bai, agintariari alde aurreko adierazpena eman beharko zaio.
 - b. Ez du aurretiazko baimenik beharko, eta ez zaio agintaritzari ere inolako komunikaziorik egin behar.
 - c. Agintariari alde aurreko jakinarazpena egingo zaio, eta hark debekatu ahal izango ditu soilik ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarriak daudenean, pertsonak edo ondasunak arriskuan jarriz.
 - d. Ospakizuna egitea, bakarrik pertsonentzat arriskutsua baldin bada, debekatu ahal izango da.

3. Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, hezkuntzaren xedea izango da:
 - a. Giza nortasunaren garapen partziala, Ikasleen Gurasoen Elkarte Nazionalak eskatuta Eskola Kontseilu Nazionalak onartutako hezkuntza-planen arabera.
 - b. Giza nortasuna garatzea, nazioarteko eskola-kontseiluak ezarritako hezkuntza-ildoen arabera.
 - c. Giza nortasuna erabat garatzea, elkarbizitzaren printzipio demokratikoak eta oinarriko eskubide eta askatasunak errespetatuz.
 - d. Giza nortasunaren garapen partziala, Estatuko printzipio katolikoak errespetatuz.

4. Espainiako Konstituzioaren 18.3 artikulua arabera, komunikazioen sekretua bermatzen da, eta, bereziki, posta, telegrafia eta telefono bidezkoena, honako kasu hauetan izan ezik:
 - a. Administrazio-ebazpen bat dagoenean.
 - b. Ez da bermatzen komunikazioen sekretua.
 - c. Ebazpen judiziala dagoenean.
 - d. Ebazpen judiziala edo administratiboa dagoenean, bata zein bestean.



5. Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua arabera, adierazi zein den erantzun zuzena:
 - a. Gizabanakoen eta komunitateen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna bermatzen da, eta haien adierazpenetan muga bakarra izango da legeak babesten duen ordena publikoa mantentzea.
 - b. Herritarrak behartuta egon daitezke beren ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.
 - c. Erlijio katolikoak estatu-izaera izango du; hala ere, botere publikoek kontuan hartuko dituzte Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak, eta lankidetzaharremanak izango dituzte gainerako erlijioekin.
 - d. Erlijio katolikoak estatu-izaera izango du, eta botere publikoek ez dute harremanik izango gainerako erlijioekin.

6. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, bitarteko funtzionarioek:
 - a. Ordaindutako zerbitzu profesional iraunkorrak ematen dituen da, eta euskal administrazio publikoari lotuta dago zuzenbide publikoak araututako estatutuharreman baten bidez.
 - b. Zeregin-kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean, eginkizun horiek betetzeko izendatuko da, gehienez ere sei hilabeterako, hamabi hilabeteko epe baten barruan, arrazoi horiek gertatzen diren unetik zenbatzen hasita.
 - c. Aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuak edo plazak betetzen ditu, idatziz formalizatutako lan-kontratu baten bidez.
 - d. Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat berariaz kalifikatutako eginkizunak baino ez ditu betetzen.

7. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako baieztapen hauetatik zein da **OKERRA** behin-behineko langileei dagokienez?
 - a. Behin-behineko langileek zuzendaritza-eginkizunak bete ahal izango dituzte.
 - b. Behin-behineko langileen izendapena eta lanpostutik kentzea libreak izango dira.
 - c. Behin-behineko langile izateak ez da merezimendurik ekarriko enplegu publikora iristeko.
 - d. Behin-behineko langileen lanpostuak eta ordainsariak lanpostu-zerrendetan edo antzeko antolaketa-tresnetan jasoko dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.

8. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 67. artikuluan ezarritakoaren arabera, erretiro arrunta hau da:
 - a. Ezintasunagatik ematen den erretiroa.
 - b. Norberak eskatutako erretiroa.
 - c. Legez ezarritako adina betetzean gertatzen den erretiroa.
 - d. Zerbitzu aktiboa luzatu ondoren ematen den denbora, gehienez ere hirurogeita hamar urte bete arte.



9. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 65. artikularen arabera, funtzionario-izaerari borondatez uko egiteak:
- Administrazio publikoan berriro sartzeko aukerarik gabe uzten du.
 - Idatziz adierazi beharko da.
 - Funtzionarioa diziiplina-espeditente baten mende dagoenean onartu ahal izango da.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
10. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74. artikuluan ezarritakoaren arabera, euskal enplegu publikoaren eskaintzetan deitutako plaza hutsen zein kupo gordeko da **gutxienez** desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten?
- Ehuneko lau.
 - Ehuneko bost.
 - Ehuneko sei.
 - Ehuneko zazpi.
11. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 162. artikularen arabera, hauetako zein da kolektiboki baliatzen den eskubide indibidual bat?
- Parte-hartze instituzionalerako eskubidea lan-baldintzak erabakitzean.
 - Oporrak hartzeko eskubidea.
 - Osasun-laguntzako prestazioak jasotzeko eskubidea.
 - Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan babes eraginkorra jasotzeko eskubidea.
12. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 164. artikuluan ezarritakoaren arabera, funtzionarioek zenbat ordaindutako opor-egun izango dituzte urte natural bakoitzean?
- Hogeita bost egun baliodun.
 - Hogeita bi egun baliodun.
 - Hogeita hiru egun baliodun.
 - Hogeita lau egun baliodun.
13. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 165. artikuluan ezarritakoaren arabera, lanaldia:
- Lanaldi osokoa izango da soilik.
 - Lanaldiak hilean zenbatekoa den eta nola banatuta dagoen ezarriko du.
 - Lanaldiko banaketak bermatu egin beharko du hala enplegatu publikoen oporretako atsedendia nola norberaren gauzetarako baimenen denbora.
 - A eta B erantzunak zuzenak dira.
14. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, zer figurak ordeztu dezake alkateordea?
- Edozein zinegotzik.
 - Alkateordeak.



- c. Udaleko funtzionario batek.
- d. Tokiko gobernu-batzarreko kide batek.

15. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, alkateari dagokio, bereziki, honako eginkizun hauek betetzea:

- a. Udal-politika, -ekonomia eta -administrazioa zuzentzea, hargatik eragotzi gabe Tokiko Gobernu Batzarrak edo beste edozein udal-organok zuzendaritza politikoan lankidetzan jardutea lege honek esleitzen dizkion eginkizun juridiko eta ekonomikoak betez.
- b. Osoko bilkuretarako eta tokiko gobernubatzarraren bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea, eta berdinketetan kalitateko botoarekin horiek erabakitzea.
- c. Mota guztietako baimenak eta gastu-xedapenak.
- d. A eta C erantzunak, biak, zuzenak dira.

16. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua arabera, alkateak eskumen hauek ditu:

- a. Udal-gobernua eta -administrazioa zuzentzea.
- b. Udalaren ordezkaritza izatea.
- c. Udal-zerbitzuak eta udal-obra zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

17. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. artikulua honako hau ezartzen du udal-antolamenduaren arau gisa:

- a. Alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura 5.000 biztanletik beherako udalerrietan baino ez daude.
- b. Udal guztietan alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura daude.
- c. 6.000 biztanletik gorako udalerrietan bakarrik daude alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura.
- d. Alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura 10.000 biztanletik gorako udalerrietan baino ez daude.

18. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. artikulua arabera, zenbat biztanle baino gehiago dituzten udalerritako udalerritako Tokiko Gobernu-Batzarra?

- a. 2.000 biztanle.
- b. 3.000 biztanle.
- c. 4.000 biztanle.
- d. 5.000 biztanle.



19. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 8. artikularen arabera, zer da udalerrria?
- Udalerrria da, zuzeneko legitimitate demokratikoa duen gobernu-maila den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko toki-erakundea.
 - Udalerrria da, zeharkako legitimitate demokratikoa duen gobernu-maila den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko toki-erakundea.
 - Udalerrria da, zeharkako legitimitate demokratikoa duen gobernu-maila den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakunderik gorena.
 - Udalerrria da, zuzeneko legitimitate demokratikoa duen gobernu-maila den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakunde gorena.
20. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 11. artikulua ezartzen duenez, hauek dira udalerrriaren osagaiak:
- Alkatea eta zinegotziak.
 - Lurraldea, biztanleria eta antolaketa.
 - Alkatea, zinegotziak, jabari publikoko ondasunak, lurraldea eta biztanleria.
 - Azpiegiturak, instalazioak eta antolamendua.
21. Zerbitzu hauetako zein **EZ** dagokio 50.000 biztanle baino gutxiago dituen udalerrri bati? (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikulua):
- Bidaiarien hiriko garraio kolektiboa.
 - Suteak prebenitzea eta itzaltzea.
 - Parke publikoa.
 - Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arretea ematea.
22. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikularen arabera, adierazi zein den erantzun **OKERRA** udalerrrien eskumen propioei dagokienez:
- Gazteriari eta zahartzaroari buruzko politiken plangintza eta kudeaketa.
 - Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
 - Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloko antolamendua eta kudeaketa.
 - Udalerrriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iriztitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.



23. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15. artikulua arabera, eroldari dagokionez, zein da erantzun **OKERRA**?
- Espanian bizi den pertsona orok inskribatu behar du ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan. Hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien bizi den udalerrian bakarrik eman beharko du izena.
 - Udal-erroldan inskribatutako pertsonak osatzen dute udalerriko biztanleria.
 - Udalerriko erroldan inskribatutakoak udalerriko auzotarrak dira.
 - Erroldan inskribatu eta astebetere eskuratzen da auzotar izaera.
24. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikulua arabera, adierazi zein den erantzun zuzena udal-erroldari dagokionez:
- Udal-errolda udalerriko auzotarrak, merkataria edo turistak jasotzen dituen administrazio-erregistroa da.
 - Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira .
 - Datu horiei buruz ematen diren ziurtagiriak pribatuak eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo eta pribatu guztietarako.
 - Udal-erroldako inskripzioak lege honen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera bakarrik izango du eragina, inskripzioa eragin zuen egitateak irauten duen bitartean, eta, nolahi ere, urtero berri beharko da, bizileku iraunkorrerako baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren inskripzioaren kasuan.
25. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek jotzen dira administrazio-prozeduran interesdun:
- Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
 - Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboaren titular modura hura sustatu dutenak.
 - Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
26. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 11. artikulua arabera, administrazio publikoek honako hauetarako soilik eskatuko diete interesdunei sinadura nahitaez erabiltzea:
- Informazioa eskatzeko.
 - Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko.
 - Hitzorduak eskatzeko.
 - Bulegoetara joateko.



27. Administrazio-dokumentuak, beren izaerak adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat eskatzen ez badu, honela emango dira (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 26. artikulua):
- Idatziz, bitarteko elektronikoen bidez.
 - Idatziz, bitarteko ez-elektronikoen bidez.
 - Ahoz.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
28. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuta egongo dira, gutxienez, honako subjektu hauek:
- Pertsona fisikoak.
 - 30 urtetik beherako pertsona fisikoak.
 - Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
 - Interesdun baten ordezkariak, nahiz eta ordezkaria ez egon behartuta elektronikoki Administrazioarekin harremanetan jartzera.
29. Jakinarazpena interesdunaren egoitzan egiten bada, eta une horretan interesduna bertan ez badago, egoitzan dagoen _____ urtetik gorako edozein pertsonak har dezake (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42.2 artikulua):
- Hamalau.
 - Hamar.
 - Zortzi.
 - Hamabi.
30. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikulua arabera, zer gertatzen da interesdunak edo haren ordezkariak uko egiten badio administrazio-jarduketan baten jakinarazpena hartzeari?
- Hala jasoko da espedientean, eta jakinarazteko ahaleginaren inguruabarrak eta bitartekoa zehaztuko dira. Horrekin, izapidea gauzatu joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.
 - Izapidea baliogabetu egingo da, eta ez du ondorioz izango.
 - Prozedura eten egingo da interesdunak jakinarazpena onartu arte.
 - Berriro bidaliko da.
31. Toki-erakundeek Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, toki-erakundeek ondasunen araubidea honako hauek arautuko dute:
- Autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan emandako legeria.
 - Erakunde bakoitzaren ordenantza propioak.
 - Herri-administrazioen ondasunen araubide juridikoa arautzen duen Estatuko oinarritzko legeria.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



32. Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 2. artikulua arabera, jabari publikoko ondasunak:
- Erabilera publikokoak eta zerbitzu pribatukoak izango dira.
 - Erabilera pribatukoak eta zerbitzu publikokoak izango dira.
 - Erabilera edo zerbitzu publikokoak izango dira.
 - Erabilera edo zerbitzu pribatukoak izango dira.
33. Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, zein ondasun arautzen dira zuzenbide pribatuko arauen bidez, beren legeria espezifikoz gain?
- Herri-ondasunak.
 - Jabari publikoko ondasunak.
 - Ondare-ondasunak.
 - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
34. Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 5. artikulua arabera, herri-ondasunak eta jabari publikoko gainerako ondasunak honako hauek dira:
- Alienagarriak.
 - Enbargarriak.
 - Preskribaezinak.
 - A eta B erantzunak zuzenak dira.
35. Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 75. artikulua arabera, jabari publikoko ondasunak erabiltzean, honako hauek hartuko dira kontuan:
- Erabilera erkidea: herritar guztiei berdindagokiena, batzuk erabiltzeak ez dezan eragotzi gainerako interesdunen erabilera.
 - Erabilera pribatiboa: jabari publikoaren zati bat okupatzeak osatzen duena, gainerako interesdunen erabilera mugatzen edo baztertzen duena.
 - Erabilera normala: ukitzen duen jabari publikoaren xede nagusiarekin bat datorrena.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
36. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikulua arabera, pertsona anitzeko organoei dagokienez, lege honen ondorioetarako, ordezkari itza orekatutzat joko da lau kide baino gehiago dituzten organoetan sexu bakoitzeko kideek gutxienez honako ordezkari itza dutenean:
- % 20.
 - % 25.
 - % 30.
 - % 40.



37. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikulua araberan, noiz egongo da zuzeneko diskriminazioa?
- Emakumeei eta gizonei tratamendu desberdina ematea dakarten neurriak eratzten direnean, justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izan arren.
 - Pertsona bati, antzeko egoeran egonda, beste bati baino tratatu txarragoa ematen zaionean, eman zaionean, edo eman lekiokenean, haren sexua dela-eta edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta.
 - Egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalte egiten dionean.
 - Gizonak etxeko lanetan has daitezzen sustatzeko neurriak hartzen direnean.
38. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren araberan, foru-administrazioei dagokie, bakoitzak bere lurralde historikoaren eremuan:
- Tokiko araudiaren eta haren aplikazioaren jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren araberan.
 - Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak gauzatea.
 - Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki-eremuan.
 - Foru-legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren araberan.
39. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren araberan, zein printzipiori egiten dio erreferentzia definizio honek? "Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, espezifikoak eta aldi baterakoak, bizitzaren eremuetan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak desagerrarazteko edo murrizteko":
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea.
 - Dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea.
 - Genero-ikuspegia txertatzea.
 - Ekintza positiboa.
40. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 4. artikulua araberan, nori dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai legegintzako eskumena, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta zuzeneko ekintza?
- Euskadiko udal-erakundeei.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko osorako erakundeei.
 - Espainiako Gobernuari.
 - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



ORDEZKO GALDERAK

1. Espainiako Konstituzioaren 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, gai hauetako zein da **OKERRA**?
 - a. Espainiako nazionalitatea legeak finkatzen duen eran lortu, gorde eta galtzen da.
 - b. Jatorrizko espainiarrei euren naziotasuna ken dakieke.
 - c. Espainiarrak adinez nagusiak dira hemezortzi urterekin.
 - d. Estatuak kontzerta dezake nazionalitate bikoitza iberoameriketako Herriekin edo Espainiarekin honelako edo halako lotura berezia duten edo izan dutenekin.
2. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan-kontratudun langileak, kontratuaren iraupenaren arabera, honako hauek izan daitezke:
 - a. Finkoak.
 - b. Epai baten ondorioz mugagabe direnak.
 - c. Aldi baterakoak.
 - d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
3. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 19. artikuluan arabera, nork aukeratzen du alkatea?
 - a. Zinegotziek edo herritarrek.
 - b. Aurreko alkateak.
 - c. Auzotarrek bakarrik.
 - d. A eta B erantzunak zuzenak dira.
4. Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 7. artikuluan arabera, narriaduragatik, balio-galeragatik edo kontserbazio-egoera txarragatik udal-zerbitzuei edo aprobetxamendu normalari aplikatu ezin zaizkion ondasun guztiak, haien izaera eta xedea kontuan hartuta, Inbentarioan baja eman ez bazaie ere, honela hartuko dira kontuan:
 - a. Soberako lurzatitzat.
 - b. Efektu ez-erabilgarritzat.
 - c. Lurzati berrerabilgarritzat.
 - d. Efektu erabilgarritzat.
5. Adierazi ondorengo hauetatik zein **EZ** den emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAeko botere publikoen jardura gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorretako bat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistikar gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:
 - a. Ordezkapen desorekatua.
 - b. Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea.
 - c. Generoaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
 - d. Gizonen inplikazioa.

